

Udal Liburutegi Sareak bat egingo du Emakumearen Egunaren ospakizunarekin, Bidebarrietan eta Deustuan burutuko diren zenbait kultur jardueraren bitartez

Bihar, asteartea, arratsaldeko 19:00etan, "Economía feminista" dokumentala aurkeztuko da Bidebarrietako Liburutegian. Dokumentalaren ondoren, krisiak genero ikuspegitik dituen ondorioei buruzko mahaingurua burutuko da.

Bilbon, 2012ko martxoaren 5ean. Liburutegien Udal Sareak, Berdintasun, Elkarlan eta Hiritartasun Sailarekin elkarlanean, zenbait saio antolatu ditu aste honetarako, Emakumeen Nazioarteko eguna ospatzeko. Programaren barruan, zenbait gai genero ikuspegitik aztertzen lagundu nahi duten zenbait proposamen jasotzen dira, ekonomiaren krisialdiak emakumeengan duen eragina edo emakumeek idatzitako literatura, besteak beste.

Programazioa bihar, asteartea (martxoak 6) abiatuko da, arratsaldeko 19:00etan, Bidebarrietako Liburutegian, Cristina Carrascoren "Economía feminista" dokumental laburrarekin. Ondoren mahainguru bat izango da, "Las repercusiones de la crisis actual para las mujeres" izenburupean.

Mahainguruan, Mertxe Larrañaga (UPV-EHU) ekonomian eta generoan adituak eta Ruth Iturbide Rodrigo (UNA) gizarte eta genero ikerlariak, hartuko dute parte.

Horrez gain, Deustuko Liburutegiak, emakumeari eta literaturari buruzko hitzaldia jasoko du larunbatean (martxoaren 10ean), Skolastika taldeko Josune Muñoz ikerlariaren eta emakumeek idatzitako literaturan adituaren eskutik. Saioa eguerdiko 12:00etan hasiko da, eta sarrera libre izango da, leku guztiak bete arte.

Ohikoa denez, ostegunean, eta Emakumearen Nazioarteko Egunarekin bat etorritik, Adierazpen instituzionala irakurriko da Bilboko Udaletxeko sarrera nagusian (goizeko 11:00etan). Horrez gain, egun osoan zehar, Alondegiko Kulturen Atariko pantailetan, "Mujeres de aquí y de allá, mujeres que mueven el mundo. Movimiento de mujeres" erakusketa osatzen duten argazkiak proiektatuko dira.

Agenda

Martxoak 6. Bidebarrietako Liburutegia

19:00 Cristina Carrascoren bideo emanaldia: "Economía feminista" Mahaingurua: "Las repercusiones de la crisis actual para las mujeres". Mertxe Larrañaga (UPV-EHU) ekonomian eta generoan aditua eta Ruth Iturbide Rodrigo (UNA) gizarte eta genero ikerlaria. Sarrera libre.

Martxoak 10. Deustuko Liburutegia

12:00 Hitzaldia: "Mujer y literatura ¿existe la Literatura femenina?", Skolastika taldeko Josune Muñoz ikerlariaren eta emakumeek idatzitako literaturan adituaren eskutik.